

Aste honetan jakin izan dugu, *Guggenheim Urdaibai* proiektuaren parte den proiektu palafitikoaren gaineko ebazpen bat izan dela:

“ EBAZPENA, INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA "OKA ITSASADARRAREN GOI-ESTUARIOKO INGURUMENA LEHENGORATZEKO ETA NATURA- ETA KULTURA-ONDAREARI BALIOA EMATEKO PROIEKTUA GAUZATZEA, EUROPAR BATASUNAREN NEXTGENERATIONEUEU FUNTSAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN" XEDE DUEN KONTRATUA EZ ESLEITZEA EZTA EGITEA (ESP.: DESMA/009/2024/O)”

Aurrekariak:

2024ko abuztuaren 8an Estatuko Aldizkari Ofizialean Euskal Herriko Itsasertz Mugartearen iragarkia publikatu zen, Punta Murueta lurmuturretik Teileria arteko itsas-lehorreko jabari publikoko lurrak okupatzeko kontsezioa emateari buruzkoa. Lurron okupazioa Guggenheim Urdaibai proiektuaren parte den paseo palafitikoak okupatuko litzuke.

Publikazio honen aurrean, *Guggenheim Urdaibai Stop plataformak*, errekurtsio bi aurkeztu zituen (2024-09-09):

- 1.- Palafitoaren proiektuari errekurtsioa. Proiektu honen onarpena ezta inoiz publiko egin.
- 2.- Palafitoa eraiki nahi den lur publikoak okupatzeko eman den kontsezioari, gora jotzeko errekurtsioa.

Aldi berean, kontratazio organoari (EJ) jakinarazi genion, palafitoa eraikitzeke lizitazioa eten beharko lukeela. (2024-09-11)

Azken berrien aurrean zera adierazi nahi dugu:

MITECOk ezeztatu egin du itsas-lehorreko jabari publikoko lurrak okupatzeko emakida, eta lursail horien lehengo jabeei izapideak egiteko aukera zabaldu die; izan ere, jabe hauek lursail horien okupazio-kontzesio baten titularrak izatera igaro ziren. Hori dela eta, gaur egun, lur horien okupaziorako lehentasuna dute.

Eusko Jaurlaritzak ez dauka ziurtatuta palafitoa ezarri nahi duen lursailen erabilgarritasuna, beraz, atzera egin du palafitoaren kontratazio publikoko prozeduran.

Prozedura ez da gelditu, amaitutzat ematen da inori adjudikatu barik. Kontratazio hau egiteko, berriz ere zerotik hasi beharko litzateke prozedura.

Plataformak poztasunez hartu du erabaki hau, eta aurrerantzean zabaltzen diren prozesuetan ere arduraz jokatu du.